tako proba edo ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei drogak ematea.

2.– Aurreko lerroaldian xedatutakoa gora-behera, eta 6/1993 Legearen 27.2 j) atalean aurrikusitakoaren itzalpean, arau-hauste larritzat hartuko da proba edo ikuskizunak egitea aginduzko berriematea gauzatu gabe, edota garapen-arau honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea proba edo ikuskizunotan.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa*.– Dekretu honen garapenerako beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari.

*Bigarrena*.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko urtarrilaren 22an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

ción muy grave al amparo de lo establecido en el artículo 27.3 d) de la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los animales.

2.– No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, la celebración de dichas pruebas o manifestaciones, sin la preceptiva comunicación, así como el desarrollo de las mismas con incumplimiento de cualquiera de los requisitos y condiciones establecidas en la presente norma de desarrollo, será considerado infracción grave al amparo de lo previsto en el artículo 27.2 j) de la Ley 6/1993.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera*.– Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de esta norma.

*Segunda*.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-405

7/1997 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Euskal Autonomi Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola-Kontseilua hautatzeko eta eratzeko eta zuzendaria izendatzeko prozedura arautzen duena.

Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 56. atalaren 1. eta 3. idazatiak berriro idatzi ziren Ikastetxeetako partehartzea, ebaluaketa eta gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren azken xedapenetatik lehenengoaren 4. idazatian. Berridazketa horrek itunpeko ikastetxeen Eskola-Kontseilua nola osatu eta eraberrituko den ezartzen du. Halaber, hezkuntza-administrazioaren esku utzi da kide anitzeko organo hori osatzeko edo behar bezala eraberritzeko prozedurak arautzea.

Beste alde batetik, Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 35. atalak ezartzen du itunpeko ikastetxeetako titularrek organo artezkarien hauteskunde-prozesua bermatuko dutela. Hortaz, eskola-elkarteko kideek emandako botoak pertsonalak, zuzenak eta sekretuak izan daitezen publizitate eta objetibotasun egokiak erabiliko dituzte.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-405

DECRETO 7/1997, de 22 de enero, por el que se regula el procedimiento de elección y constitución del Consejo Escolar y designación del (de la) Director(a) de los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los apartados 1 y 3 del artículo 56 de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del derecho a la educación, en su nueva redacción establecida en el punto 4 de la Disposición Final Primera de la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, de la Participación, la Evaluación y el Gobierno de los centros docentes, determinan la composición y renovación del Consejo Escolar de los centros docentes concertados. Asimismo se encomienda a la Administración Educativa regular los distintos procedimientos tendentes a la constitución o correcta renovación de dicho órgano colegiado.

Por su parte el artículo 35 del Decreto 293/1987, de 8 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de Conciertos Educativos, establece que los(as) titulares de los centros docentes concertados garantizarán el proceso electoral de sus órganos rectores mediante una adecuada publicidad y objetividad que comportará el carácter personal, directo y secreto de los votos emiti-

Aipatutako hauteskunde-prozesua ordezkaritza-sistema proportzional baten arabera burutuko da.

Era berean, lehen aipatutako azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak itunpeko ikastetxeen zuzendarien agintaldiaren epea aldatu egin du.

Prozedura ezberdinak arautzeari buruz Lege Organiko horren azken xedapenetatik lehenengoaren 4. idazatiak ezartzen duena bete dadin, Eskola-Kontseiluak hautatzeko, eraberritzeko eta osatzeko, eta itunpeko ikastetxe pribatuetako zuzendariak izendatzeko arau zehatzak ezarri behar dira.

Horri jarraiki, Euskadiko Eskola-Kontseiluak emandako irizpena ezagutu eta gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta eta Gobernu Batzordeak 1997ko urtarrilaren 22ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA.– HELBURUA ETA EZARPEN-EREMUA

*1. atala.*– Dekretu honen helburua da Euskal Autonomi Erkidegoko itunpeko ikastetxeetako Eskola-Kontseilua nola hautatu, eraberritu eta osatu eta zuzendaria nola izendatu arautuko duen prozedura erregulatzea.

*2. atala.*– Dekretu hau Euskal Autonomi Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatu guztietan aplikatuko da, baldintza hauek betetzen dituztenean:

a) Bertako Eskola-Kontseilua lehenengoz eratzen dutenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin izenpetutako itunak aurreikusten duenaren arabera.

b) Hautatuak izan zirenerako epea agortzearren, Eskola-Kontseiluko dagozkion kideak eraberritu egin behar denean.

II. ATALBURUA.– ITUNPEKO IKASTETXE PRIBATUEN ESKOLA-KONTSEILUA

1. SEKZIOA.– ESKOLA-KONTSEILUAREN OSAKETA

*3. atala.*– Azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren azken xedapenetatik lehenengoaren 4. idazatiak ezartzen duenaren arabera, itunpeko ikastetxe pribatuen Eskola-Kontseilua honakoek osatuko dute:

– Zuzendariak.

– Ikastetxearen titularraren hiru ordezkarik.

– Ikastetxearen irakasleen lau ordezkarik.

– Ikastetxearen ikasleen gurasoen edo tutoreen lau ordezkarik.

– Ikastetxearen ikasleen ordezkari bik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklotik aurrera.

dos por los miembros de la comunidad escolar, con arreglo a un sistema de representación proporcional.

Igualmente, la duración del mandato de los(as) Directores(as) de los centros docentes concertados ha sido objeto de modificación por la anteriormente mencionada Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre.

Con objeto de dar cumplimiento a lo previsto en el punto 4 de la Disposición Final Primera de la citada Ley Orgánica, en lo que se refiere a la regulación de los distintos procedimientos allí contemplados, procede establecer las reglas concretas que han de regir la elección, renovación y constitución de los Consejos Escolares, así como la designación del (de la) Director(a) de los centros docentes privados concertados.

En su virtud, conocido el dictamen emitido por el Consejo Escolar de Euskadi, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 22 de enero de 1997,

DISPONGO:

CAPÍTULO I.– OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1.*– Es objeto del presente Decreto la regulación del procedimiento de elección, renovación y constitución del Consejo Escolar y designación del (de la) Director(a) de los centros docentes concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.*– El presente Decreto será de aplicación en todos los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco que:

a) Constituyan su Consejo Escolar por primera vez, según lo previsto en el Concierto suscrito con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

b) Deban renovar los miembros que corresponda de su Consejo Escolar por haber transcurrido el plazo para el que fueron elegidos.

CAPÍTULO II.– EL CONSEJO ESCOLAR DE LOS CENTROS DOCENTES CONCERTADOS

SECCIÓN 1.ª.– COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ESCOLAR

*Artículo 3.*– El Consejo Escolar de los centros docentes privados concertados, según lo establecido en el punto 4 de la Disposición Final Primera de la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, tendrá la siguiente composición:

– El (la) Director(a).

– Tres representantes del (de la) titular del centro.

– Cuatro representantes de los(as) profesores(as) del centro.

– Cuatro representantes de los(as) padres (madres) de los(as) alumnos(as) del centro.

– Dos representantes de los(as) alumnos(as) del centro, a partir del primer ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria.

– Ikastetxearen administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari batek. Hezkuntza bereziko ikastetxe espezifikoetan administrazio eta zerbitzuetako langileen barruan sartuko dira laguntza osagarriko langileak.

*4. atala.*– 1.– Ikasleen Gurasoen Elkarteak legez osatuta egongo dira. Horietatik ikastetxeko ordezkaritza handiena daukan elkarteak Eskola-Kontseilurako ikasleen gurasoen lau ordezkarietariko bat izendatu ahal izango du. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea hasi baino lehen, Gurasoen Elkarteak ikastetxeko titularrari jakinaraziko dio izendatutako ordezkariaren izena. Gurasoen Elkarteak epe honetan izendapena egin ez badu, ordezkari hau ohizko hauteskunde prozesuan hautatuko da.

2.– Ordezkari horrek ikasleen gurasoen hautesleerroldan egon beharko du. Agintaldia, gehienez ere, lau urtekoa izango da eta kargua uzteko arrazoi bi egon daitezke: ikasleen gurasoen ordezkari hautatuen arrazoi beragatik eta, beste alde batetik, izendatu duen Ikasleen Gurasoen Elkarteak erabakita.

3.– Ikasleen Gurasoen Elkarteak izendatutako ordezkariak agintaldia bukatu baino lehen uzten badu kargua, Elkarteak beste ordezkari bat izendatuko du aurrekoak bete barik utzi duen denborarako. Hilabete bitan ez badute ordezkaririk izendatzen, azken hauteskunde prozesuan botorik gehien dauzkan baina hautatua izan ez den gurasoen hautagaiak hartuko du kargua, Eskola-Kontseilua partzialki eraberritu arte.

4.– Ikastetxeko Ikasleen Gurasoen Elkarteen artean ordezkaritza handiena daukana izango da dagozkien itunpeko irakaskuntzetako guraso gehien afiliatzen duena.

*5. atala.*– 1.– Berariazko Lanbide Heziketa ematen duten itunpeko ikastetxeek enpresa-munduko ordezkari bat ekartzeko aukera izango dute euren Eskola-Kontseiluetara, hitzarekin baina boto barik.

2.– Horretarako, ikastetxeak ematen dituen Lanbide Heziketako irakasgaiekin zerikusia daukan enpresa-erakunde garrantzitsuenera joko du ikastetxeko titularrak, hark bere ordezkaria izenda dezan.

3.– Izendatutako ordezkariaren agintaldia, gehienez ere, lau urtekoa izango da. Ordezkari horrek enpresaerakundearen erabakiz edo ikastetxeko titularraren erabakiz utziko du kargua.

*6. atala.*– Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, maila horretako ikasle batek Eskola-Kontseiluan sartzeko aukera izango du, hitzarekin baina boto barik, eta ikastetxearen barne-araudiak ezartzen dituen baldintzak betez, halakorik baldin badago.

– Un(a) representante del personal de administración y servicios del centro. En los centros específicos de educación especial, se considerará incluido en el personal de administración y servicios el personal de atención educativa complementaria.

*Artículo 4.*– 1.– La Asociación de Padres y Madres de Alumnos(as), legalmente constituida, que tenga la condición de más representativa en el centro, podrá designar uno(a) de los(as) cuatro representantes de los(as) padres (madres) de alumnos(as) en el Consejo Escolar, previa comunicación al (a la) titular del centro, formulada con anterioridad al inicio del plazo de presentación de candidaturas, en la que se indicará el nombre del (de la) representante designado(a). En caso de no producirse tal designación, su plaza será cubierta en el proceso electoral ordinario.

2.– Este(a) representante habrá de estar incluido(a) en el censo electoral de los(as) padres (madres) de alumnos(as). La duración de su mandato será, como máximo, de cuatro años y cesará por las mismas causas que los(as) representantes electos(as) de los(as) padres (madres) de alumnos(as) y, además, por decisión de la Asociación de Padres y Madres de Alumnos(as) que lo (la) designó.

3.– En caso de cese del (de la) representante designado(a) por la Asociación de Padres y Madres de Alumnos(as) con anterioridad al vencimiento del plazo de duración de su mandato, la Asociación procederá a la designación de un(a) nuevo(a) representante por el tiempo de duración de mandato que le restara al (a la) anterior. De no producirse la designación en el plazo de dos meses, la vacante será cubierta, hasta la siguiente renovación parcial del Consejo Escolar, por el (la) candidato(a) que figure en primer lugar en la lista de suplentes del sector de padres y madres correspondiente a la última elección efectuada.

4.– Tendrá la consideración de más representativa la Asociación de Padres y Madres de Alumnos(as) que afilie a un número mayor de padres y madres de las enseñanzas concertadas correspondientes.

*Artículo 5.*– 1.– Los centros concertados que impartan Formación Profesional Específica, podrán incorporar a su Consejo Escolar, con voz pero sin voto, un(a) representante del mundo de la empresa.

2.– A tal efecto, el (la) titular del centro se dirigirá a la organización empresarial más representativa relacionada con las enseñanzas de Formación Profesional que imparta, para que designe su representante.

3.– La duración del mandato del (de la) representante designado(a) será de cuatro años, como máximo. Este(a) representante cesará por decisión de la organización empresarial que lo (la) designó o por decisión del (de la) titular del centro.

*Artículo 6.*– En los centros de Educación Primaria, un(a) alumno(a) perteneciente a este nivel educativo podrá incorporarse al Consejo Escolar, con voz pero sin voto, en las condiciones que, en su caso, establezca el Reglamento de Régimen Interior del centro.

2. SEKZIOA.– ESKOLA-KONTSEILUKO KIDEEN AGINTALDIAREN EPEA

*7. atala*.– 1.– Itunpeko ikastetxeetako Eskola-Kontseiluko kideak lau urterako hautatuko dira, Dekretu honetako hurrengo idazatian, 8. atalaren 4. idazatian eta 10. atalean jasotakoari kalterik eragin barik.

2.– Dekretu hau indarrean sartu ondoren ikastetxe bakoitzean osatzen den lehen Eskola-Kontseiluko kideetatik erdia urte birako hautatuko da. Horren helburua izango da urte birik behin Eskola-Kontseiluaren erdia eraberritzea, uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 56. atalaren 3. idazatian jasotakoa betetzeko. Idazati hori azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren azken xedapenetatik azkenean berridatzi zen.

3. SEKZIOA.– ESKOLA-KONTSEILUAREN ERDIA ERABERRITZEKO MODUA

*8. atala*.– 1.– Dekretu hau indarrean sartu ondoren ikastetxe bakoitzeko hauteskunde-prozesuan hautatzen diren Eskola-Kontseiluko kideak erdi bitan banatuko dira, ordezkatzen dituzten eskola-elkarteko talde bakoitzean.

2.– Erdi bakoitza honela osatuko da:

a) Lehenengo erdia:

– Ikastetxearen titularraren ordezkari bat.

– Ikastetxearen irakasleen ordezkari bi.

– Ikastetxearen ikasleen gurasoen ordezkari bi.

– Ikastetxearen ikasleen ordezkari bat.

– Ikastetxearen administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria.

b) Bigarren erdia:

– Ikastetxearen titularraren ordezkari bi.

– Ikastetxearen irakasleen ordezkari bi.

– Ikastetxearen ikasleen gurasoen ordezkari bi.

– Ikastetxearen ikasleen ordezkari bat.

3.– Erdi bakoitzeko kideak zehazteko, hautatu guztiak kasuan kasuko hauteskunde-prozesuan lortutako boto-kopuruaren arabera ordenatuko dira, boto gehien eskuratu dituztenekin hasita. Boto-berdinketa egonez gero alfabetikoki ordenatuko dira, zozketaz ateratako hizki bat kontuan hartuz. Hori egin ondoren, lehenengoek lehen erdia osatuko dute eta gainerakoek bigarren erdia.

4.– Lehenengo erdiko kideak lau urterako izendatuko dira eta bigarren erdiko kideak urte birako.

SECCIÓN 2.ª.– DURACIÓN DEL MANDATO DE LOS MIEMBROS DEL CONSEJO ESCOLAR

*Artículo 7*.– 1.– Los(as) miembros del Consejo Escolar de los centros docentes concertados serán elegidos(as) por un periodo de cuatro años, sin perjuicio de lo dispuesto en el punto siguiente, en el punto 4 del artículo 8 y en el artículo 10 del presente Decreto.

2.– La mitad de los(as) miembros del primer Consejo Escolar que se constituya en cada centro con posterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto, serán elegidos(as) por un periodo de dos años, con objeto de renovar la mitad del Consejo Escolar cada dos años en cumplimiento de lo dispuesto en el punto 3 del artículo 56 de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, en su nueva redacción establecida en la Disposición Final Primera de la Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre.

SECCIÓN 3.ª.– RENOVACIÓN POR MITADES DEL CONSEJO ESCOLAR

*Artículo 8*.– 1.– Los(as) miembros del Consejo Escolar elegidos(as) en el primer proceso electoral que se lleve a efecto en cada centro con posterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto, se dividirán en dos mitades en cada uno de los sectores de la comunidad escolar a los que representen.

2.– Cada una de las mitades estará configurada de la siguiente forma:

a) Primera mitad:

– Un(a) representante del (de la) titular del centro.

– Dos representantes de los(as) profesores(as) del centro.

– Dos representantes de los padres y madres de los alumnos(as) del centro.

– Un(a) representante de los(as) alumnos(as) del centro.

– El (la) representante del personal de administración y servicios.

b) Segunda mitad:

– Dos representantes del (de la) titular del centro.

– Dos representantes de los(as) profesores(as) del centro.

– Dos representantes de los padres y madres de los alumnos(as) del centro.

– Un(a) representante de los(as) alumnos(as) del centro.

3.– Para determinar qué miembros corresponden a cada mitad, se ordenarán todos(as) los(as) electos(as) según el número de votos obtenidos en el proceso electoral correspondiente, comenzando por los(as) que hayan obtenido mayor número de votos. En caso de empate a votos se ordenarán alfabéticamente, a partir de una letra elegida por sorteo. Una vez ordenados(as) de esta forma, los(as) primeros(as) completarán la primera mitad y los(as) restantes la segunda mitad.

4.– Los(as) miembros de la primera mitad serán nombrados(as) por un periodo de cuatro años. Los(as) miembros de la segunda mitad serán nombrados(as) por un periodo de dos años.

*9. atala.–* Lehenengo hauteskunde-prozesua burutzen denean, Eskola-Kontseilua urte birik behin eta zatika eraberrituko da, eta honako bakante hauek beteko dira:

a) Eraberritze partzial horretako bakanteak. Ordezkariek bete beharreko agintaldia bukatzen dutenean hutsik uzten dituzten lekuak dira.

b) Aurreko eraberritze partzialeko bakanteak. Ordezkari horiek aurreko eraberritzean lau urterako izendatu arren agintaldiaren lehenengo urte bietan Eskola-Kontseilua uzten badute gertatuko da. Leku huts horiek bete egingo dira, ordezko batek behin-behinean bete baditu ere.

*10. atala.–* Eraberritze partzial batean aurreko eraberritze bateko bakanteak egonez gero, boto-kopuru gehien daukaten hurrengoek beteko dituzte. Ordezkari horiek urte birako izendatuko dira. Boto-berdinketa baldin badago, hautagaiak alfabeto-ordenaz izendatuko dira, beti.

4. SEKZIOA.– HAUTESKUNDE-GARAIA

*11. atala.–* Eskola-kontseiluko kideak ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan hautatuko dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen duen epean.

5. SEKZIOA.– HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN OSAKETA ETA ESKUMENAK

*12. atala.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du Eskola-Kontseiluko kideak hautatzeko epea irekitzen duen Agindua. Hori argitaratu eta hurrengo egunetik hasita gehienez ere zazpi egunetan ikastetxe bakoitzak hauteskunde-batzordea eratuko du eta honakoek osatuko dute: zuzendariak, batzordearen lehendakaria izango denak, eta aginte-organo horretarako ordezkari bat hautatu behar duten eskola-elkartearen talde bakoitzetik kide banak; azken horiek zozketa bidez aukeratuko dira. Halaber, talde bakoitzerako ordezko bana aukeratuko da. Ikastetxeko titularra edo eskuordetzen duen pertsona ere hauteskunde-batzordeko partaide izango da.

*13. atala.–* Hauteskunde-batzordeak honako eskumenak izango ditu:

a) Hautesle-erroldak onartzea eta argitaratzea. Horren aurretik, ikastetxeko zuzendariak egin beharko ditu erroldak.

b) Hauteskunde-prozesuaren egutegia finkatzea.

c) Hautagaiak aurkezteko epea jartzea.

d) Hautagaiak onartzea eta aldarrikatzea. Hautagaien zerrenda argitaratzen denetik hauteskunde-egunera lau egun egongo dira, gutxienez.

*Artículo 9.–* Una vez efectuado el primer proceso electoral se llevarán a cabo renovaciones parciales del Consejo Escolar cada dos años y en ellas se cubrirán las siguientes vacantes:

a) Vacantes correspondientes a la renovación parcial de que se trate. Son las que corresponden a las plazas que dejan libres los(as) representantes que finalizan el periodo de tiempo para el que fueron nombrados(as).

b) Vacantes correspondientes a la renovación parcial anterior. Son las que corresponden a las plazas de los(as) representantes que fueron nombrados(as) en la renovación anterior por un periodo de cuatro años pero que han cesado como miembros del Consejo Escolar en los dos primeros años de su mandato. Estas vacantes se cubrirán independientemente de que hubieran o no sido cubiertas provisionalmente por un(a) suplente.

*Artículo 10.–* En el caso de que en una renovación parcial haya vacantes que pertenezcan a una renovación parcial anterior se cubrirán con los(as) siguientes en número de votos. Estos(as) últimos(as) serán nombrados por un periodo de dos años. Los empates a votos se dirimirán siempre por orden alfabético de los(as) candidatos(as).

SECCIÓN 4.ª.– PERIODO ELECTORAL

*Artículo 11.–* La elección de los(as) miembros del Consejo Escolar se realizará dentro del primer trimestre del curso correspondiente, en el periodo fijado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

SECCIÓN 5.ª.– COMPOSICIÓN Y COMPETENCIAS DE LA JUNTA ELECTORAL

*Artículo 12.–* En el plazo máximo de siete días a partir del siguiente a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Orden del (de la) Consejero(a) de Educación, Universidades e Investigación por la que se declare abierto el periodo para la elección de los(as) miembros del Consejo Escolar, se constituirá en cada centro una Junta Electoral compuesta por el(la) Director(a), que será su presidente(a), y un(a) miembro de cada uno de los sectores de la comunidad escolar que deban elegir algún(a) representante en el citado Órgano de Gobierno, que serán elegidos(as) por sorteo. Asimismo se elegirán un(a) miembro suplente de cada sector. Igualmente formará parte de la Junta Electoral el (la) titular del centro o la persona en quien delegue.

*Artículo 13.–* Serán competencias de la Junta Electoral:

a) Aprobar y publicar los censos electorales que habrán sido elaborados previamente por el(la) Director(a) del Centro.

b) Fijar el calendario del proceso electoral.

c) Determinar el periodo de presentación de candidaturas.

d) Admitir y proclamar las candidaturas. Entre el día de la publicación de la lista de candidatos(as) y la fecha de las votaciones deberán transcurrir, como mínimo cuatro días.

e) Hala baderitzo, hauteskunde-txartelen eredua onartzea.

f) Hauteskunde-mahaien eraketa bultzatzea.

g) Hautesle-talde bakoitzak botoa eman ahal izango duen ordutegia finkatzea.

6. SEKZIOA.– HAUTAKETA-PROZESUA

*14. atala.*– 1.– Ordezkariak hautatzeko eta ordezkari izateko eskubidea hauek daukate: gurasoek eta legezko tutoreek, irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleek, beti ere hautesle-erroldan baldin badaude.

2.– Ikastetxearen Barne-Araudiak Lehen Hezkuntzako ikasleen ordezkari baten presentzia aurrikusten duen ikastetxeetan, ikasle hauek hautagai eta hautesle izango dira, aipatutako Araudiak finkatzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

3.– Gurasoen ordezkariak hautatzeko eta ordezkari izateko eskubidea ikastetxean ikasten duten ikasleen gurasoek edo, kasua bada, legezko tutoreek izango dute. Umeen guraso-agintea guraso bakar batek daukanean, berari bakarrik dagokio hautesle eta hautagai izatea.

4.– Irakasleen ordezkariak hautatzeko eta ordezkari izateko eskubidea klaustroan dauden irakasleek izango dute.

*15. atala.*– 1.– Bakoitzari dagokion taldeko hautagai izan daiteke hautesle-erroldan dagoen guztia. Kandidatura aurkezteko ezin izango da eskatu hauteslekopuru zehatz baten sinadurek abalatuta egotea, hautesle-zerrenda itxiak osatzea edo aipatutako eskubidea mugatzen duen beste edozer.

2.– Hautagai bat legez ezarrita dagoen elkarte, erakunde edo talde zehatz bateko kide gisa aurkeztu bada, hautagaiak aldarrikatzen direnean derrigorrez geratuko da jasota egoera hori.

*16. atala.*– 1.– Eskola-kontseiluan ordezkariak hautatzeko eskubidea daukan eskola-elkarteko talde bakoitzeko hauteskunde-mahai bana eratuko da.

2.– Hautaketaren ordutegia ezartzeko, nahi duten hautesle guztiei botoa emateko aukera eman behar zaiela hartuko da kontuan.

3.– Ikastetxeko zuzendaria mahai guztietako lehendakaria izango da.

*17. atala.*– 1.– Botoa zuzena eta sekretua izango da eta ezin izango da eskuordetu.

2.– Hautesle bakoitzak dagokion hautestontzian txartel bat utziko du eta bertan idatziko ditu bere botoa jasotzen duten pertsonen izena edo izenak. Gurasoek eta irakasleek gehienez izen bi idatziko dituzte; ikasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek,

e) Aprobar, si lo juzga conveniente, los modelos de papeletas electorales.

f) Promover la constitución de Mesas Electorales.

g) Fijar el horario durante el que podrán ejercer el derecho de voto los distintos grupos de electores.

SECCIÓN 6.ª.– PROCEDIMIENTO DE ELECCIÓN

*Artículo 14.*– 1.– El derecho a elegir y ser elegido representante lo ostentan los(as) alumnos(as) de Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional, los padres y madres o tutores(as) legales, los(as) profesores(as) y el personal de administración y servicios, incluidos en el censo electoral.

2.– En los centros en los que el Reglamento de Régimen Interior prevea la incorporación de un(a) representante de los(as) alumnos(as) de Educación Primaria, éstos(as) alumnos(as) serán electores y elegibles en las condiciones que establezca el citado Reglamento.

3.– El derecho a elegir y ser elegido representante de los(as) padres (madres) de los(as)alumnos(as) será ejercido por el padre y la madre o, en su caso, por los(as) tutores(as) legales de los(as) alumnos(as) escolarizados(as) en el Centro. En los casos en que la patria potestad se encuentre conferida a uno solo de los progenitores, las condiciones de elector y elegible le concernirán exclusivamente a él (ella).

4.– El derecho a elegir y ser elegido representante de los(as) profesores(as), lo ostentan quienes integren el Claustro de profesores(as).

*Artículo 15.*– 1.– Podrán presentarse como candidatos(as) por su sector respectivo todas las personas incluidas en el censo electoral. No podrán exigirse para la presentación de candidaturas requisitos tales como el estar avalados por la firma de un determinado número de electores(as), formación de candidaturas cerradas o cualquier otro que conlleve limitación del expresado derecho.

2.– En el caso de que un(a) candidato(a) se haya presentado como miembro de una determinada asociación, organización o agrupación legalmente establecida, tal circunstancia deberá hacerse constar necesariamente con ocasión de la proclamación de candidatos(as).

*Artículo 16.*– 1.– Se constituirá una Mesa electoral por cada uno de los sectores de la Comunidad educativa con derecho a elegir representantes en el Consejo Escolar.

2.– El horario de votación deberá establecerse de manera que todos(as) los(as) electores(as) que lo deseen puedan ejercer su derecho de voto.

3.– Todas las Mesas estarán presididas por el (la) Director(a) del Centro.

*Artículo 17.*– 1.– Las votaciones se efectuarán mediante sufragio directo, secreto y no delegable.

2.– Cada votante depositará en la urna correspondiente una papeleta en la que constarán el nombre o nombres de las personas a las que otorgue su voto. Los padres y madres y los(as) profesores(as) harán constar en su papeleta un máximo de dos nombres, los(as) alum-

ostera, izen bakarra.

3.– Balio bakoak izango dira aurreko idazatian ezarritakoak baino hautagai-izen gehiago dauzkaten botoak eta hautagai-izen errepikatuak dauzkaten botoak.

7. SEKZIOA.– HAUTAKETA-PROZESUAREN AZKEN FASEA

*18. atala.*– Hauteskunde-ekintza bakoitzean, botoematea bukatu denean, mahaiak botoak zenbatuko ditu. Zenbaketa publikoa izango da; horren ondoren akta idatzi eta mahaikide guztiek sinatuko dute. Akta hori hauteskunde-batzordera bidaliko da. Dekretu honetako 21. atalak jasotzen duen leku hutsak edo bakanteak betetzeko modua burutu ahal izateko, botoak jaso dituzten guztien izenak eta zenbat boto izan dituzten aktan jasoko da eta boto-kopuruaren arabera ordenatuko dira izenok. Boto-berdinketa badago, alfabetikoki ordenatuko dira.

Lortutako emaitzen ondoan, egin diren arrazoibide eta ohar guztiak jasoko dira aktan. Horrelakorik egonez gero, arrazoibidea egin duenak ere sinatu egin beharko du akta.

Halaber, 15. atalean aipatutako elkarte, erakunde edo taldeen erreferentziak ere aktan jasoko dira, hautagaiak aldarrikatzen direnean horrelako erakunde edo talderen bat egonez gero.

8. SEKZIOA.– ESKOLA-KONTSEILUAREN ERAKETA

*19. atala.*– Hautatuen behin betiko zerrenda argitaratu eta gehienez bost eguneko epean ikastetxeko zuzendariak Eskola-Kontseilu berria eratuko du. Aipatutako aginte-organo horren eraketa-aktaren kopia Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du eta ordezkariak nortzuk diren jakinaraziko dio, Dekretu honen eraskinean datorren ereduaren arabera.

*20. atala.*– Eskola-elkarteko talderen batek edo batzuek, kideen erruz, ordezkaririk hautatu ez arren, ikastetxeko Eskola-Kontseiluaren eraketak balio osoa izango du.

9. SEKZIOA.– LEKU HUTS EDO BAKANTEAK BETETZEKO MODUA

*21. atala.*– 1.– Dagokien eraberritzea baino lehenago, hautatutako ordezkariek Eskola-Kontseiluan egoteko beharrezko baldintzak izateari uzten badiote lekua hutsik geratuko da eta zerrendako hurrengo hautagaiak beteko du, jasotako botoen arabera. Leku hutsak betetzeko, azken eraberritze partzialeko aktetako zerrenda erabiliko da, bete beharreko lekua aurreko eraberritze partzial batekoa izan ala ez. Lekua betetzeko hautagai gehiago ez badago, bete barik geratuko da ikastetxearen Eskola-Kontseilua zati batean hurrengo eraberritu arte.

nos(as) y el personal de administración y servicios un solo nombre.

3.– Serán nulos los votos que contengan más nombres de candidatos(as) que los establecidos en el punto anterior y aquellos que contengan nombres de candidatos(as) repetidos(as).

SECCIÓN 7.ª.– FASE FINAL DEL PROCESO ELECTORAL

*Artículo 18.*– En cada uno de los actos electorales, una vez finalizada la votación, se procederá por la mesa al escrutinio de los votos. Efectuado el recuento de los mismos, que será público, se extenderá un acta que firmarán todos(as) los(as) componentes de la mesa, debiendo remitirse a la Junta Electoral. En previsión de la cobertura de vacantes a la que se refiere el artículo 21 del presente Decreto, se harán constar en el acta, ordenados por número de votos, los nombres de todos(as) los(as) que hubieran obtenido votos y el número de éstos que a cada uno(a) corresponda. En caso de empate a votos se ordenarán por orden alfabético.

En el acta se reflejarán, junto a los resultados obtenidos, las alegaciones y observaciones de cualquier índole que se hubiesen formulado. En este supuesto el (la) reclamante firmará también el acta.

Asimismo, se reflejarán también en el acta las referencias a asociaciones, organizaciones o agrupaciones que figuren en la proclamación de candidaturas que se cita en el artículo 15.

SECCIÓN 8.ª.– CONSTITUCIÓN DEL CONSEJO ESCOLAR

*Artículo 19.*– En el plazo máximo de cinco días a partir de la publicación de la lista definitiva de electos(as), el (la) Director(a) del centro procederá a la constitución del nuevo Consejo Escolar y remitirá a la Delegación Territorial de Educación correspondiente una copia del Acta de constitución del citado órgano de gobierno, y la composición del mismo según el modelo que figura en el Anexo del presente Decreto.

*Artículo 20.*– La no elección de sus representantes por parte de alguno o algunos de los sectores de la comunidad educativa, por causas imputables a sus miembros, no impedirá la válida constitución del Consejo Escolar del Centro.

SECCIÓN 9.ª.– COBERTURA DE VACANTES

*Artículo 21.*– 1.– Aquellos(as) representantes electos(as) que, antes de la renovación que les corresponda, dejaran de cumplir los requisitos necesarios para pertenecer al Consejo Escolar producirán una vacante que será cubierta por los(as) siguientes candidatos(as) de acuerdo con el número de votos obtenidos. Para la dotación de las vacantes que se produzcan, se utilizarán las listas de las actas de la última renovación parcial, independientemente de que la vacante corresponda a una renovación parcial anterior. En el caso de que no hubiera más candidatos(as) para cubrir la vacante, ésta quedaría sin cubrir hasta la próxima renovación parcial del Consejo Escolar del centro.

2.– Edozein eraberritze partzialen aurreko uztailetik aurrera gertatzen diren leku hutsak eraberritze horretan beteko dira, eta ez ordezkoen bidez.

3.– Eskola-kontseiluko kide den irakaslea ikastetxeko zuzendari izendatzen baldin badute, hark utzitako lekua aurreko idazati bietan ezarritako moduan beteko da.

4.– Edozelan ere, ordezkoa Eskola-Kontseiluko kide izendatuko dute berriro partzialki eraberritzen dutenerarte, ordezten duen pertsona edozein epetarako izendatuta egonda ere.

*22. atala.*– Eskola-Kontseiluko izendatutako kideei dagozkien leku hutsak betetzeko, dagokion pertsona edo erakundeak kide berria izendatuko du. Ikastetxeko ordezkaritza handiena daukan Ikasleen Gurasoen Elkarteak izendatutako ordezkariari dagokion leku hutsa betetzeko, Dekretu honen 4. atalan xedatutakoa ezarriko da.

III. ATALBURUA.– ZUZENDARIA IZENDATZEA

*23. atala.*– 1.– Zuzendaria izendatzeko, hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren IV. tituluan jasotako arauak beteko dira. Eskola-kontseilua eratu eta hurrengo aste bietan izendatuko da zuzendaria. Eraketa hori dekretu honetako 19. atalean dago jasota.

2.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da.

3.– Ikastetxeetako titularrek dagokien Hezkuntzako lurralde-ordezkariari emango diote zuzendariaren izendapenaren berri; horretarako hamar egun izango dituzte gehienez ere, izendapenetik aurrera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.*– Hautagaien aldarrikapenean ez bada aipatzen elkarte, erakunde edo talde zehatz batekoak direnik, independientea dela joko da partehartze, kontsulta eta aholkularitzako ikastetxearena baino eremu handiagoaren organoak osatzeko portzentaiak eratzeko.

*Bigarrena.*– Partehartzeari buruzko arauak hausten badira, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan salatu ahal izango da. Hori gertatzen bada, hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 61. eta 62. ataletan ezarritakoa beteko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoa.*– Salbuespen moduan, 96-97 ikasturtean itunpeko ikastetxeen aginte-organoak ikasturteko bigarren hiru hilekoan hautatuko dira.

2.– Las vacantes que se produzcan a partir del mes de julio inmediatamente anterior a cualquier renovación parcial se cubrirán en dicha renovación y no por sustitución.

3.– La vacante generada, en su caso, por el (la) profesor(a) que habiendo sido elegido(a) representante en el Consejo Escolar sea nombrado(a) posteriormente Director(a) del centro, se cubrirá de modo análogo a lo dispuesto en los dos puntos anteriores.

4.– En cualquier caso, el (la) suplente será nombrado(a) miembro del Consejo Escolar hasta que se produzca la nueva renovación parcial del mismo, independientemente del periodo de tiempo para el que estuviera nombrada la persona a la que sustituye.

*Artículo 22.*– Las vacantes que se produzcan entre los miembros del Consejo Escolar nombrados por designación serán cubiertas mediante la designación de un nuevo miembro, por parte de la persona u organismo que corresponda. En el caso del representante designado por la Asociación de Padres(Madres) más representativa del Centro, se aplicará lo dispuesto en el artículo 4 del presente Decreto

CAPÍTULO III.– DESIGNACIÓN DEL (DE LA) DIRECTOR(A)

*Artículo 23.*– 1.– La designación de Director(a) se sujetará a las normas establecidas en el título IV de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación, y se efectuará, en su caso, dentro de las dos semanas siguientes a la constitución del Consejo Escolar prevista en el artículo 19 de este Decreto.

2.– La duración del mandato del (de la) Director(a) será de cuatro años.

3.– Los(as) titulares de los centros comunicarán al (a la) Delegado(a) Territorial de Educación correspondiente la designación del (de la) Director(a) en el plazo máximo de diez días a partir de la fecha de su nombramiento.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– Si, en la proclamación de candidatos(as), no figurara ninguna precisión respecto a su pertenencia a una determinada asociación, organización o agrupación, será considerado(a) independiente a los efectos de establecer los porcentajes correspondientes a la constitución de órganos de participación, consulta y asesoramiento de ámbito superior al centro.

*Segunda.*– Las infracciones de las normas sobre participación podrán ser denunciadas ante la correspondiente Delegación Territorial de Educación, en cuyo caso se estará a lo dispuesto en los artículos 61 y 62 de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*– Excepcionalmente, en el curso 96-97 el procedimiento de elección de los órganos de gobierno de los centros docentes concertados se llevará a cabo en el segundo trimestre del curso.

*Bigarrena.*– Dekretu hau indarrean hasi aurretik hautatutako Eskola-Kontseiluek euren funtzioak betetzen jarraituko dute, bete beharreko epea bukatu arte.

*Hirugarrena.*– Agintaldia indarrean daukaten itunpeko ikastetxe pribatuetako zuzendariek euren karguetan jarraituko dute agintaldia bukatu arte. Salbuespena izango da hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 59.4. azpiatalean jasotako lan-uztea.

AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko urtarrilaren 22an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

*Segunda.*– Los Consejos Escolares elegidos con anterioridad a la entrada en vigor de este Decreto continuarán desempeñando sus funciones hasta el término del plazo para el que fueron elegidos.

*Tercera.*– Los(as) Directores(as) de los centros privados concertados con mandato en vigor, seguirán desempeñando sus funciones hasta el término de dicho mandato, salvo que se produzca el cese previsto en el artículo 59.4 de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación.

DISPOSICIÓN FINAL

*Única.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

ERASKINA

........................................................................................................................................................
.................................................................................... IKASTETXEKO ESKOLA-KONTSEILUAREN OSAKETA

A) ESKOLA-KONTSEILUKO KIDE EZ-HAUTATUAK:

Zuzendaria:____________________________________________________________

– Ikastetxeko titularren ordezkariak: ____________________________________
____________________________________
____________________________________

– Ordezkaritza handiena daukan Gurasoen Elkartea: ____________________________________

– Enpresa-erakundearen ordezkaria: ____________________________________

B) ESKOLA-KONTSEILUKO KIDE HAUTATUAK: (*)

Irakasleen ordezkariak: ____________________________________
____________________________________
____________________________________
____________________________________

Gurasoen ordezkariak: ____________________________________
____________________________________
____________________________________
____________________________________

Ikasleen ordezkariak: ____________________________________
____________________________________

Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkaria :
____________________________________

C) ESKOLA-KONTSEILUKO KIDE HAUTATUEN ORDEZKOAK:

Irakasleen ordezkariak: ____________________________________
____________________________________
____________________________________
____________________________________
____________________________________
____________________________________
____________________________________
____________________________________

Gurasoen ordezkariak: ________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

Ikasleen ordezkariak: ________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

________________________________

Administrazio eta zerbiztuetako pertsonalaren ordezkariak:

________________________________

________________________________

________________________________

______________________(e)n, _____(e)ko _________________k ___________

IKASTETXEKO ZUZENDARIA

(* ) Jarri bedi hautagaiak zein elkarte, erakunde edo talderen izenean aurkeztu diren.

*ANEXO*

*COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ESCOLAR DEL CENTRO* ..........................................................................................................
..........................................................................................................................................................................

*A) MIEMBROS NO ELECTOS DEL CONSEJO ESCOLAR:*

*– Director/a :* ______________________________

*– Representantes del titular del Centro :* ______________________________
______________________________
______________________________

*– Asociación de Padres/Madres más representativa:* ______________________________

*– Representante de la Organización Empresarial :* ______________________________

*B) MIEMBROS ELECTOS DEL CONSEJO ESCOLAR: (*)*

*Representantes del Profesorado :* ______________________________
______________________________
______________________________
______________________________

*Representantes de los Padres/Madres:* ______________________________
______________________________
______________________________
______________________________

*Representantes del Alumnado:* ______________________________
______________________________

*Representante del personal de administración y servicios :*
______________________________

*C) SUPLENTES DE LOS MIEMBROS ELECTOS DEL CONSEJO ESCOLAR: (*)*

*Representantes del Profesorado:* ______________________________
______________________________
______________________________
______________________________
______________________________
______________________________
______________________________
______________________________

*Representantes de los Padres/Madres :*

________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________

*Representantes del Alumnado:*

________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________

*Representante del personal de administración y servicios :*

________________________________________________
________________________________________________
________________________________________________

*En* ______________________ *a* _____ *de* _________________ *de*___________

*EL/LA DIRECTOR/A DEL CENTRO*

*(*) Se hará constar el nombre de la asociación, organización o agrupación por la que se han presentado los(as) candidatos(as).*